


## Euskadin emakume gazteek gizon gazteek baino proportzio handiagoan dituzte lanaldi partzialeko lanak, aldi baterako kontratuak, bai eta soldata baxuagoak ere

Gazteen Euskal Behatokiak kaleratu duen azken txostenaren arabera ([Gazteak eta enplegua Euskadin 2017](#)), ez dago alde esanguratsurik lanean ari diren gizon eta emakume gazteen kopuruen artean: 30 urtetik beherako gizonen % 36,0 lanean dabilta, zeregin nagusi moduan, bai eta adin horretako emakumeen % 34,7 ere.

Hala ere, badaude aldeak batzuen eta besteen lan-baldintzen artean.

Lanaldi partzian lan egitea ohikoagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino; izan ere 20 puntutako aldea dago horrelako lanaldia duten 30 urtetik beherako emakumezko langileen (% 39,7) eta adin horretako gizonzko langileen (% 19,1) artean.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ([Gazteak eta enplegua Euskadin 2017](#))

Gainera emakume gazteek gizon gazteek baino proportzio handiagoan dituzte aldi baterako kontratuak, baita kontraturik gabeko lanak ere.

<b>Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko langileek oraingo enpleguan duten kontratu mota, sexuaren arabera</b>			
(%)	Guztira	Sexua	
		Emakumeak	Gizonak
Aldi baterako kontratua	47,6	52,4	43,1
Kontratu mugagabea, aldizkako finkoa, kooperatibista	35,5	31,6	39,2
Norberaren konturako lana	8,3	4,4	12,0
Kontraturik gabeko lana	5,6	7,7	3,7
Ez du erantzun	2,9	3,8	2,1
Guztira	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Gauzak horrela, urtebeteko epean lana galtzeko arriskurik sumatzen ote duten galdetzen zaienean, normala da emakume gazteek gizon gazteek baino beldur handiagoa izatea (% 27,0 eta % 18,4 hurrenez hurren).

Bestalde, gizonekin konparatuta, emakume gazte gutxiago ausartzen dira beren negozio propioa izaten edo beren kontura lan egiten (lanean dabiltzan emakume gazteen % 4,4 eta lanean ari diren gizon gazteen % 12,0).

Eta hori ez da alde bakarra; besteen kontura lan egiten dutenen artean emakume gazteak gehiago ari dira administrazio publikoan lanean, gizon gazteak baino (% 10,0 eta % 4,8 hurrenez hurren). Bestetik, besteen kontura lan egiten duten emakume gazteen % 5,1ek etxe-zerbitzuetan lan egiten dute eta egoera horretan dagoen gizon gazterik ez dugu aurkitu.

Azkenik, gizon gazteen batez besteko soldatak emakumeenak baino altuagoak dira. Lanean ari diren 30 urtetik beherako emakumeek 1025 euro garbiak jasotzen dituzte hilean, batez beste; gizon gazteen kasuan batez besteko soldata garbia 1157 eurokoa da hilean; hau da, gizon eta emakume gazteen arteko soldata-arrakala 100 eurokoa baino handiagoa da.

<b>Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko langileen batez besteko hileko soldata garbiak, sexuaren arabera</b>			
(€)	Guztira	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak
16-29 urtekoen batez besteko soldata	1093	1157	1025

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2017*)

Txosten osoa [Gazteen Euskal Behatokiaren web orrian kontsulta](#) daiteke.